



## **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ETA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIEK ELKARRIZKETA-MAHAI BAT SORTZEAREN ALDEKO MOZIOA.**

### **Arrazoien azalpena**

Maiatzaren 14an EUDELen Batzorde Eragilean proposamen bat eginzen, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta lurralde historikoko udalerriek elkarrizketa-mahai bat edo erakunde arteko mahai bat eratu eta antolatzeari buruz.

COVID-19aren pandemiaren ondorioz bizitzen ari garen ezohiko egoera zuzenean eragiten ari da euskal ogasunen diru-sarreretan, Euskadiko enpresen eta familien ekonomian izan duen inpaktuagatik.

Alarma-egoeran erabakitako ekintzek zerga-sarreretan ondorioak izan dituzte, eta erakunde guztiak ari dira ondorio horiek jasaten, baita euskal udalerriak ere, izan ere, zerga itunduen partaidetzan sarrerak murrizteaz gain, zerga-ordenantzetatik eratorritako sarrerak ere murriztuko zaizkie; osasun-krisia krisi ekonomiko bilakatu baita.

2020ko maiatzaren 12an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 3/2000 Foru Dekretu Araua onartu zuen, Udalak Finantzatzeko Foru Funtsagatik 2020an egin beharreko kontura koordainketak aldatzen dituen eta toki erakundeentzako aurrekontuetan zerga arloko hainbat neurri ezartzen dituen; toki erakundeek erabaki- tarte handiagoa izan dezaten, kreditu gehigarriak onartzeko, eta baita tasetan hobariak ezartzeko ere, Covid19ak eragindako egoera dela-eta.

Maiatzaren 15ean Gipuzkoako Finantzen Lurralde Kontseiluak aztertu zuen 3/2000 Foru Dekretu Arau horrek zer ondorio izan dezakeen udal finantzetan, Gipuzkoako Udalen Finantzaketarako Foru Funtsaren bidez.

Gaur inoiz baino beharrezkoagoa da erakundeen arteko elkarrizketa, pandemia honi eman behar zaion erantzuna elkarlanean eta

eraginkortasunez aztertzeko. Horregatik, EUDELen Batzorde Eragilean landutakoa helarazten da, eta honako akordio hauek hartzea proposatzen da:

## **MOZIOA**

1. Gipuzkoan elkarrizketarako erakunde-mahai bat sortzeko eskatzea, Foru Aldundiaren eta EUDELeko Gipuzkoako Lurralde Batzordearen artean; lurraldeko erakunde guztietatik krisiari erantzuteko ekimen eta planen koordinazioa bultzatzeko, eta lankidetzaren eraginkor bat garatzeko, hiritarrentzat erakunde arteko gobernantza hobea lortzearren.

2. 3/2000 Foru Dekretu Arauan Finantzen Lurralde Kontseilua aipatzen da, azaroko konturako ordainketari buruz hitz egitean. Hala ere, kontuan izanik, batetik, krisiaren intentsitatea, eta, bestetik, euskal erakunde maila guztien arteko finantza-harremanak arautzen dituen arrisku partekatuen printzipioa; inoiz baino beharrezkoagoa da egoera ekonomikoari, diru-bilketa aurreikuspenei eta udalen egoerari buruzko informazioa maiztasun handiagoz partekatzea. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diogu hiru hilean behin dei dezala Finantzen Lurralde Kontseilua.

Usurbilen, 2020ko maiatzaren 22an.